

MARTA CID COMPANY

B Maila | Prosa | 3. saria

Marta Cid naiz, 16 urte ditut, 2009ko martxoaren 19an jaio nintzen Beasainen. La Sallen ikasten dut, eta gauza asko gustatzen zaizkidan arren, irakurtzea, moda eta musika, bereziki kontzertuak, dira orain gehien betetzen nauten gauzak. Familiarekin eta lagunekin pasatzen dudan denboraz asko gozatzen dut, niretzat garrantzitsuena delako. Pertsona lotsatia, saiatua eta sentikorra naizela uste dut. Nire leku segurua beti izan da itsasoa eta hondartza, oso lotuta sentitzen naiz itsasora, eta nire babeslekurik handiena da, bakea sentiarazten didalako.



URREZKO HARIA

Aitona maitea,

Badakizu txikitatik hobeto eman izan zaidala nire sentimenduak idaztea sentitzea baino. Ez naiz inoiz inori ezer ez esatera ausartzen, nire oskol txikia janzten dut, inork ikus ez dezan gaizki pasatzen ari naizela, baina zurekin beti izan da desberdina, zurekin sentitzen dut buruko hariak sortzen dituzten lotura edo korapilo guztiak desagiten ari direla, pixkanaka. Niretzat, entzuteko duzun gaitasun hori ez da soilik nire arazoei buruzkoa, baita esan ditzakedan tontakeria guztiak ere. Zuk entzuten didazu, eta niretzat lasaitasun handiena zure barrea entzutea da. Horregatik, idazten dizut, dena nola doan kontatu nahi dizudalako. Behar dudalako. Dena.

Gaizki pasatzen ari naiz. Ospitalean ingresatuta zaudenetik, nire burua bi lekutan bizi dela sentitzen dut aldi berean. Alde bat, gela zuri txiki horretan dago, beroa hezurak zeharkatzen didan tokian sartzen naizen bakoitzean, eta txistu txikiak entzuten dira, ondo zaudela edo hori esaten dutela ziurtatzen didatenak. Nire gorputzaren beste erdia, harkaitzetan dago, itsasoaren eta hondartzaren ondoan. Zure lekurik gogokoena. Nire lekurik gogokoena. Oraindik entzuten ditut gure inguruko umeen txaplatak, atzekoen musika, hamakan lo geratzen zinen bitartean egiten zenituen zurrunga txikiak eta portura iristen ziren itsasontzien soinua. Baina beti nago zurekin nire bizitzako edozein etxean, zu zarelako nire etxea.

Oraindik gogoan ditut hondartzako une horiek. Igeri egiten irakatsi zenidan lehen unea gogora ekartzen dut. Urak ikaratu egiten ninduen, eta olatuek irauli. Zuk eskua eman

zenidan eta itsasoaz fidatzeko esan zenidan. Gidatuko ninduela, eta horrela, pixkanaka beldurrik ez izaten eta flotatzen ikasi nuen. Eta hori da nire altxorrik handiena eta noski, zure barrea. Oraindik entzuten dut. Han egon nahiko nuke. Berriro. Zurekin.

Zu han egon zaitezke eta ni hemen, baina beti egongo da zerbait lotzen diguna eta lotuko gaituena. Irakurri nuen, zuri egitea hainbeste gustatzen zaizun eran, "hari gorria" izeneko legenda bat dagoela. Kondairak dio hari gorriaren bidez lotuta daudenak arima biki bihurtzen direla, eta istorio garrantzitsu bat biziko dutela. Ez du axola zenbat denbora pasatzen den edo bizitzan dauden inguruabarrak. Hari gorria korapilatu, luzatu, tenkatu edo higatu egin daiteke... baina inoiz ez hautsi. Horixe sentitzen dut zurekin. Baina agian pixka bat desberdina. Zu urre kolorekoa zara, hotz handia dudanean gelditzen naizen eguzki izpia zara. Nire *outfit*-a beti goratzen duen urrezko eraztuna zara. Praken poltsikoan aurkitzen dudana txanpon hori zara, edo udako gauetan jartzen den urrezko ilunabar hori, horregatik gurea urrezko hari bat da ez gorria. Urrezko haria. Lotzen gaituena.

Badakizu aitona, nire bizitza asko aldatu dela azkenaldian. Txikitan beti esaten nizun ez nuela inoiz senargairik izango, gauza horiek nazka ematen zidatela, hori ere aldatu da, ez bakarrik nire altuera eta ile luzea. Ez dut mutil-lagunik, baina nire bizitzan sinestezina den norbait agertu da, asko maite nauena eta ia zuk bezain beste zaintzen nauena. Oso gogoko izango zintuzket, zu bezalakoa da, gustatuko litzaidake zu ezagutzea eta oso ondo konponduko zinatekete, Andoni du izena. Uste dut hemendik gutxira amari eta aitari aurkeztuko diedala, eta gustatuko litzaidake zuk ere ezagutzea. Egunen batean esango diot nirekin ospitalera etortzeko, ziur ilusioa egiten dizula.

Nire anaiak ondo daude... Egia da giro arraroa sumatzen dudala, ekaitz batek harrapatu izan bagintu bezala. Sentitzen dut lagundu behar dudala, denok ondo egon behar garela. Ezin ditut utzi, ezin ditut abandonatu. Faltan botatzen zaituzte eta oso gaizki ari dira pasatzen ezin direlako ospitalera igo. Baina ni, nork kontsolatzen nau ni?. Ni abandonatzen ari naizela sentitzen dut. Lagunengandik urruntzen ari naiz, ondo bagaude ere. Baina ez naiz joaten hondartzarako txangoetara edo tabernako bileretara. Nire anaiak zaindu behar ditudala eta zu zaindu behar zaitudala sentitzen dudalako. Bai, aitona. Baina ondo egongo naiz, ez kezkatu. Ospitaletik jaisten zarenean, denok hartuko zaitugu eta hainbeste gustatzen zaizkizun besarkadak emango dizkizugu. Maite zaitugu, asko maite zaitugula badakizu.

Eta, azkenik, aitona, beste zerbait ere esan behar dizut, eta mingarria egiten zait esatea, korapiloa sentitzen dut eztarrian, estutzen eta itotzen nauena. Baina badakit askatzeko era bakarra hau dela. Zu zinelako korapilo hori desegin zezakeen pertsona bakarra.

Badakit gutun hau... ez duzula inoiz irakurriko. Bi aste baino gehiago dira joan zinenetik, baina leku hau, eta leku guztiak, zure oroitzapenez beteta daude. Eta nahiago nuke hondartzan egongo banintz, zure ondoan eserita, zure presentziaz gozatzen. Baina oraintxe bertan sentitzen dut zurekin nagoela, lotuta gaudela. Batzuetan begiak ixten ditut eta pentsatzen dut hemen jarraitzen duzula, eskua ematen didazula beti bezala, olatuen artean

sartzen nauzula txikitan bezala, ezezagunari beldurrik ez izaten irakasten didazula eta bizitzaz

itsaso amaigabea balitz bezala hitz egiten didazula, non galdu gabe nabigatzen jakin behar den. Baina zuk dakidan guztia irakatsi didazu, orain gehien behar dudana izan ezik: zu gabe bizitzen ikastea.

Idazten ari naizen bitartean, konturatu naiz gutun hau ez dela zuretzat bakarrik, niretzat baizik. Nik behar nuen. Zu berreskuratu behar zintudan, eta benetan zure ondarea jarraitu eta dena nola doan kontatu. Eta horretan jarraituko dut zu ez zarelako joan, beti izango zara nire barnean.

Eta badakit, nahiz eta denborak aurrera egin, nahiz eta oroitzapenak desagertzen joan eta bizitzak zu gabe jarraitu, batzen gaituen urrezko haria ez dela inoiz hautsiko. Dir-dir egiten jarraituko du, itsasoaren gaineko eguzki-izpi bat bezala, zure barrea nire oroitzapenetan bezala, eta zu nire bizitzan bezala.

Maite zaitut,

Urrezko haria hautsi arte.

Zure biloba Maitane